

Iraunkortasun Plana 2021

Aurkezpena







AURKEZPENA

IRAUNKORTASUN
PLANA
2021

Petronor



1	Iraunkortasunaren gure ikuspegia	5
2	2021ko Iraunkortasun Plana	6
	2.1 Garapen Iraunkorraren helburuak	6
	2.2 Laburpena	8
	 2.3 Aldaketa klimatikoa	9
	 2.4 Ingurumena	12
	 2.5 Berrikuntza eta teknologia	21
	 2.6 Eragiketa segurua	24
	 2.7 Pertsonak	26
	 2.8 Etika eta gardentasuna	29
3	Plana eguneratzeko prozesua	31

Legezko Oharra

Iraunkortasun Plan honek ekintza-multzoa du eta oso-osorik ala zati batean legeak eskatzen duenetik urrunago doa. Beren helburua garapen iraunkorrari ekarpena egitea da. Repsol taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egin eta betetzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzeko orduan aldatu, atzeratu edo indargabetzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe. Ildo horri eutsiz, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2021: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau Petronor, S.A.ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu. Pertsonen oinarrizko eskubideak betetzeko ezinbestekoa den gorako energia-eskea asetzen saiatzen gara eta, aldi berean, epe labur eta ertainean balioa ematen diogu.

Gizartean eta ingurumenean **eragin positiboak maximizatu eta negatiboak minimizatzen ditugu** gure balio-katean zehar eta, horretarako, jarraibide etiko eta gardenaz baliatzen gara. Hala, indarreko araudia betetzeaz gain, nazioarteko estandar nagusiak kontuan hartzen ditugu.

Abiapuntu horietatik, gure iraunkortasun ereduak erabakiak hartzean alderdi etiko, ingurumenaren inguruko eta sozialei erreparatzen die eta interes-taldeekin elkarrizketak izaten dira aurretik. Urtero egiten dugun jarduketara da, eta horren ondorioz sortzen diren ekimenek erantzuna ematen diete interes-taldeek maila globalean eta tokian-tokian dauzkaten kezkei.

Hala sortu dira **Iraunkortasun Planak**, urteko ekintza-plan publikoak. **Iraunkortasun Plan Globala** ibilbide-orria da, eta, bertan oinarrituta, Tokiko Planak hedatzen dira. Azken horiek, gainera, tokiko testuinguruarekin lotutako konpromisoak ere hartzen dituzte kontuan.

Iraunkortasun Plana Petronorren Iraunkortasun Ereduaren sei ardatzen inguruan egituratzen da.



Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoaren konponbidearen kide izan nahi dugu



Ingurumena

Energjarik eraginkorrena sortzeko ezinbesteko baliabideak kontsumitzen ditugu, ahalik eta eragin txikienarekin



Berrikuntza eta teknologia

Berrikuntza sustatzen dugu eta aurrerapen teknologikoak erantzen ditugu gu eta gure ingurunea hobetu eta hazteko



Eragiketa segurua

Gure langileen segurtasuna, kontratistena, bazkideena eta tokiko erkidegoarena bermatzen dugu



Pertsonak

Pertsonen aldeko apustua egiten dugu eta beren garapena nahiz gizarte-ingurunearena bultzatu ere bai



Etika eta gardentasuna

Gauden toki guztietan arduraz eta zintzotasunez jarduten dugu

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

Petronorren, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako **2030eko Agenda** babesten dugu, eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) jotzen ditugu erreferentziatuz, geure lehentasunak zehazteko orduan.

Gure ustez, batez ere, eragin handieneko helburuetarantz bideratu behar dira ahaleginak. Horretarako, konpainiaren plan estrategikoa, materialtasunaren azterketako gai nabariak eta jasangarritasunerako plan guztietako tokiko ekarpena kontuan hartuta, honako GJH hauek hautatu dira:

Energia eskuratzeko orduan daukagun zeregina, garapen sozioekonomikoan dugun ekarpena eta klima-aldaketaren aurkako borroka direla eta, 7., 8. eta 13. GJHei ematen diegu lehentasuna.

Guretzat, beste erakunde batzuekin lan egitea da 2030eko Agendan ekarpena egiteko modu eraginkorra.

Hori dela eta, jasangarritasuna sustatzen duten ekimen pribatu-publikoekin bat egiten dugu.

Uraren kudeaketaren hobekuntzarekin dugun konpromisoa eta Berrikuntzari zein Teknologiarri eta Ekonomia Zirkularrari ematen diegun laguntza kontuan hartuta, bigarren, 6., 9. eta 12. GJHei ematen diegu lehentasuna.



2021ean, bigarren aldiz argitaratuko dugu GJHen (Garapen Jasangarrirako Helburuen) inguruan egiten dugun urteko txostena.

2030eko Agendan egiten dugun ekarpena gardena izatea nahi dugunez, konpainia osoan maila globalean nahiz tokian-tokian egiten ditugun ahaleginen egoera orokorraren inguruko 30etik gora adierazle eta konpromiso argitaratzen ditugu, gainerako eragileekin batera gainditu behar ditugun erronka sozialetarako irtenbideak eskaintzeko asmoz.

Ingurumen eta gizarte arloko aldaketako eragile izan nahi dugu lan egiten duguneko lurraldeetan. Behar ditugun baliabideak, gogoia eta, batez ere, konpromisoa ditugu. Horixe bera da gure asmoa, eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendak hori egia bihurtzeko bidea zein den adierazten digu.

GARAPEN IRAUNKORRAKO HELBURUAK

Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



Petronor



Iraunkortasun Plana
Petronor
2021

16 Ekintza

 Aldaketa klimatikoa

EKINTZA 2

 Ingurumena

8 EKINTZA

 Berrikuntza eta teknologia

EKINTZA 2

 Eragiketa segurua

EKINTZA 1

 Pertsonak

EKINTZA 2

 Etika eta gardentasuna

EKINTZA 1

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizartea bezala, geu ere kezkatuta gaude giza jarduerak kliman duen eraginagatik, eta konpromiso irmoa hartu dugu planetaren batez besteko tenperaturaren gorakada 2° C-en azpitik mugatzeko asmoarekin, industriaurreko mailak kontuan hartuta.

Energia segurtasunez, eraginkortasunez, eskuragarritasunez eta jasangarritasunez hornitzea dugu erronka, eta, horretarako, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak murriztu ditugu, Pariseko Hitzarmenaren helburuak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzeko asmoz.

2019ko abenduan, Petronorrek jendaurrean adierazi zuen bere estrategia bideratuko zuela, 2050ean isuri garbirik ez duen konpainia izateko. Hori dela eta, asmo handiko xede hori zehaztu duen lehenengoa da bere sektorean. Gure 2021-2025eko Plan Estrategikoan, ibilbide-orria ezarri da, iragaitza energetikoa arrakastaz aurrera egiten jarraitzeko asmoz. Eskuragarri ditugun aurrerakuntza teknologikoen bidez, aurreratu egiten dugu urte horretarako %80-%90 murriztuko ditugula isuri garbiak, eta behar besteko konpromisoa hartzen dugu, kopuru hori handitzeko dauden teknologia onenak erabiltzeko, CO₂ harrapatzeko, erabiltzeko eta biltegitzeko prozesua barne. Disrupzio teknologiko handirik gabe, Petronorrek karbono-hustuleku naturalak erabiliko lituzke, 2050erako isuririk gabeko helburua betetzeko.

Alde horretatik, Oil and Gas Climate Initiativerekin (OGCI) bat egin dugu, jardun eta irtenbide teknologiko onenak partekatzeko eta OGCI Climate Investment inbertsio-fondoan parte hartzeko. Horrela, BEG isuriak eskala adierazgarrian murrizten dituzten teknologien garapenean hamar urtean 1.000 milioi USD inbertitzeko hartutako konpromisoa bideratuko dugu.

Hona hemen Jasangarritasun Planean ardatz honekin lotuta dauden ekintzak.



EKINTZA

Berotegi-efektuko gasen isuriekien lotutako analisien emaitzen kalitatea bermatzea.

DESKRIBAPENA

Ingurumenaren gaineko eraginarekin lotutako laginen analisien emaitzen kalitatea bermatuko dugu. Analisisien elkar-erkaketak egingo ditugu berotegi-efektuko gasak atmosferara isurtzeko prozesuarekin lotutako saiakuntzen erreferentziako laborategiekin.

ADIERAZLEA

Erregai likidoen (fuel olio) elkar-erkaketa bat.

Gas naturalaren elkar-erkaketa bat.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Energia fotovoltaikoa sortzeko lau zentro abian jartzea.

DESKRIBAPENA

Sorkuntza fotovoltaikorako zentroak jarriko ditugu abian gurekin hitzarmenak eta aliantzak ezarri dituzten erakunde eta instituzioekin.

ADIERAZLEA

Sorkuntza fotovoltaikorako 100na KW dituzten 4 instalazio egitea.

Urtean orduko 120 Mw-ko sorkuntza-ahalmena lortzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizarteari denboran jasagarria den hazkuntza bermatzeko, Petronorren lan egiten dugunean, lehentasuna ematen diegu ingurumenaren gaineko eraginak murrizteko behar diren ekintzei. Horretarako, geure produktuak fabrikatzeko prozesu industrialetan darabiltzagun baliabideen erabilera hobetzen dugu, ura barne, eta airera zein uretara egindako isuriak gutxitzen ditugu, baita hondakinen sorrera ere, ahal dela, bigarren bitzta ematen diegulako.

Kapital naturala zein biodibertsitatea zaintzea eta ekonomia zirkularra ezartzea funtsezkoa da geure jarduera garatzeko orduan.

Gure Segurtasun eta Ingurumen Estrategian, funtsezko jarduketak lerroak zehazten dira, eta konpainiak ingurumenaren arloan egindako ahaleginen helburu izango dira 2025. urteari begira: negozioari buruzko erabakiak hartzeko orduan eraginak eta menpetasunak kuantifikatzeko eta balioesteko gai izan behar gara, eta, horretarako, gure eragiketen faktore nabarienei ematen diegu lehentasuna. Ingurumen-arloko kudeaketa bikainaren bidez eragiketak egiteko lizentzia sozialari eustea dugu helburu. Horrela, egiaztatu egin dugu jasagarriak garela geure balio-kate osoan, bai gure proiektu eta eragiketetan, bai geure bezeroen esku jartzen ditugun produktu eta zerbitzuetan.

Jasagarritasun Plan honetan, behar besteko konpromisoa hartu dugu, Petronorrek jasagarritasunaren ardatz honetan dituen lan-lerroekin bat datozen ekintzak garatzeko.



EKINTZA

“0 kilometroko” sukaldeko olio erabilia (SOE) lehengai moduan erabiltzea.

DESKRIBAPENA

Merkataritza-hitzarmenak egingo ditugu sukaldeko olio erabiliaren (SOE) tokiko kudeatzaileekin, bildu dezaten, eta, ondoren, lehengai moduan erabiliko dugu.

ADIERAZLEA

Bi hitzarmen egitea tokiko kudeatzaile baimenduekin.

20 tona lehengai moduan erabiltzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Ingurumenaren ikuspegia kontuan hartzen duten prestakuntza-jarduerak egitea.

DESKRIBAPENA

Ingurumenaren arloko prestakuntza emango diegu Ingurumen eta Segurtasuneko teknikariei (TOMAS), honako GJH hauetan zehaztutako ikuspegia kontuan hartuta: 6. helburua (ur garbia eta saneamendua), 9. helburua (industria, berrikuntza eta azpiegitura) eta 12. helburua (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak).

ADIERAZLEA

Ingurumen eta Segurtasun arloko Eragiketako teknikari guztiei ematea (sei dira, guztira), baita txandako sei buruei ere.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Hozteko sistemetan, uraren erabileraren eraginkortasuna handitzea.

DESKRIBAPENA

Hirugarren mailako sistemako eragiketak hobetuko ditugu Findegiko Uren Araztegian (FUA), erabilera industrialerako ur araztua gehitzeko.

ADIERAZLEA

Findegiko Uren Araztegian (FUA) hirugarren mailako sistemako uraren berreskurapena %28 handitzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Ur araztua itsasora itzultzeko prozesuarekin lotutako analisien emaitzen kalitatea bermatzea.

DESKRIBAPENA

Ingurumenaren gaineko eraginarekin lotutako laginen analisien emaitzen kalitatea bermatuko dugu. Analisisien elkar-erkaketak egingo ditugu ur araztua itsasora isurtzeko prozesuaren kalitate-saiakuntzekin lotutako faktoreen erreferentziako laborategiekin.

ADIERAZLEA

Gutxienez itsasora isuritako ur araztuaren analisien 5 elkar-erkaketa egitea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Ur azidoen ahitzaileetako eraginkortasun energetikoa hobetzea.

DESKRIBAPENA

TV3 eta TF3 izeneko unitateetako ur azidoen ahitzaileetan, ioi amonioaren analizatzaileak jarriko ditugu, lurrunaren kontsumoa hobetzeko eta findegiko uren araztegia doan ur-efluentearen kalitatea hobetzeko.

ADIERAZLEA

Kargako lurrun-kontsumoaren ratioa %5 gutxitzea.

Urtean 780 tn CO₂ gutxiago isurtzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Gasolio-tangetan jasandakoa zaintzeko sarea indartzea.

DESKRIBAPENA

Tangetan jasandakoa zaintzeko sarea indartuko dugu, ustezko euspen-galerak goiz antzematen direla bermatzeko.

ADIERAZLEA

Bost tangatan, euspen-galerak antzemateko sistema jartzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Tangak garbitzean sortutako hondakinak murriztea.

DESKRIBAPENA

Eragiketa autonomikorako sistemak erabiliko ditugu, tangak ikuskatu eta konpondu aurretiko garbiketa egiteko.

ADIERAZLEA

Tangak konpondu baino lehenagoko garbiketako hondakin solidoen bolumena %70 murriztea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Tangak geldotzean konposatu organiko lurrunkorrak (KOLak) murriztea.

DESKRIBAPENA

Oxidazio-sistemak erabiliko ditugu, konpondu beharreko tangak irekitzean konposatu organiko lurrunkorrak (KOLak) desagerrarazteko.

ADIERAZLEA

Tangak konpondu baino lehenagoko geldoketako konposatu organiko lurrunkorren bolumena %90 murriztea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...


Prozesu zein produktuen deskarbonizazioan eta jasangarritasunean aurrera egitea funtsezko helburua da gure industriaren etorkizuneko estrategian. Hori dela eta, Petronorren, apustu sendoa egiten dugu geure ekoizpen industrialaren eta garraioaren deskarbonizazioaren alde, eta, horretarako, I+G+b-ko inbertsio handia egiten dugu geure ikerketa-zentroan (Repsol Technology Lab).

Era berean, 2017an sortu zenetik, Petronorren Digitalizatorako Programak jasangarritasunarekin daukan konpromiso irmoari eusten dio. Zeharka, programa hori lagungarria da Petronorreko negozio-unitateen eraldaketa digitalari begira, eta eragina du balio-kate osoan.

Repsol Technology Labetik, berrikuntza irekia sustatzen da, hau da, ekosistema berritzailearekin lan egiten da, produktu teknologiko disruptiboen erabateko hedapenerako denbora azkartzeko gai den lan-ingurunea eratzeko. Lankidetzaren eredu hori funtsezkoa da, emaitza arrakastatsuak lortzeko eta sistema energetiko eraginkorragoak zein jasangarriagoak eratzeko.

Berrikuntza irekiaren adibide moduan, Petronorrek inbertsio-fondoa dauka, hiru jarduketa-arlotan irtenbideak eskaintzen dituzten start-upetako partaidetzak erosteko: deskarbonizazioa eta ekonomia zirkularra, mugikortasun aurreratua eta berriztagarriak eta teknologia digitala eta aktiboen erabilera hobea.

Jasangarritasun Plan honetan, behar besteko konpromisoa hartu dugu, jasangarritasun-ereduaren ardatz honetako lan-lerroekin bat datozen ekintzak garatzeko.



EKINTZA

Hiri-hondakin solidoen pirolisiaren bidez lortutako biogasaren bitartez sortutako hidrogeno berdea lortzea.

DESKRIBAPENA

Hiri-hondakin solidoen pirolisiaren bidez lortutako biogasaren bitartez sortutako hidrogeno berdea (H₂) ekoizteko instalazioen eraikuntzarako proiektua idatziko dugu.

ADIERAZLEA

2021eko uztailean proiektuaren ingeniari-tza kontzeptuala egitea.

2021eko irailean proiektuaren oinarri-tza ingeniari-tza onartzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Karbono dioxidoaren (CO₂) harrapaketa mineralizatzea, gero berrerabiltzeko.


DESKRIBAPENA

Proiektua idatziko dugu, erregai sintetikoen fabrikazioan erabiliko dugun karbono dioxidoaren (CO₂) harrapaketarako eta mineralizaziorako instalazioak eraikitzeko.

ADIERAZLEA

2021eko irailean proiektuaren oinarritzko ingeniari-tza onartzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Istripurik ez izatea da gure asmo handia, eta, horretarako, segurtasun-maila handia eskatzen dugu geure prozesu eta instalazioetan. Izan ere, lehenetsun berezia ematen diegu pertsonen babesari nahiz geure inguruneari, eta, era berean, geure hornitzaile zein kontratisten sentsibilizazioa ere lantzen dugu.

Segurtasuna balioaren sorrerarako, bikaintasunerako eta erantzukizunerako oinarria dela badakigunez, funtsezko jarduketa-lerroak zehazten dira 2025erako dugun Segurtasun eta Ingurumen Estrategian, eta segurtasunaren arloan egiten ditugun ahaleginen helburu izango dira: kulturaren sustapena, lidergo eraldatzailea eta segurtasunaren inguruko sentsibilizazioa. Horrez gain, gure konpromisoaren adierazgarri, segurtasun-helburuek %10eko eragina dute gure langileen ordainsari aldagarrian.

Munduko gaur egungo testuinguruan, gizartea digitalizatzeko prozesua azkartu egin dela kontuan hartuta, eragiketa segurua eragiketa digitaletara ere hedatzen da, eta gero eta garrantzi handiagoa du zibersegurtasunak. Hamarkada bat baino gehiago daramagu informazioaren teknologiak eta prozesuak hobetzeko eta egokitzeko zikloetan lan egiten. Era berean, etengabe bilakatu eta korapilatu egiten den ingurunea dela badakigunez, ahalegina egonkortu beharrean, areagotu egiten dugu ziklo bakoitzean.

Hona hemen eragiketa seguruarekin dugun konpromisoaren adierazgarri diren ekintzak.



EKINTZA

Prestakuntza-jarduerak egitea herritarren segurtasunaren arloko erakunde publikoekin.

DESKRIBAPENA

Prestakuntza-jarduerak egingo ditugu herritarren segurtasunaren arloko erakunde publikoekin, Foru Suhiltzaileekin eta Ertzaintzarekin. Erakunde horien koordinaziopean, industriaren eta pertsonen segurtasunerako sistematika garatuko dugu findegian nahiz inguruan.

ADIERAZLEA

Gutxienez baterako bi jarduera egitea herritarren segurtasunaren arloko erakunde publikoekin.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gure langileak, erkidegoak, merkataritza-harremanak eta bezeroak gure jasangarritasun-ereduaren funtsezko ardatza dira.

Badakigu Petronor osatzen duten pertsonak gure abantaila lehiakor nagusia direla, baita konpainia jasangarria izateko gakoa ere. Honako honexen aldeko apustua egiten dugu: aukera-berdintasuna, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen integrazioa, kultura-aniztasuna, bizitza profesional eta pertsonalaren arteko oreka, osasuna eta ongizatea, prestakuntza zein garapena eta talentua erakartzeko eta eusteko prozesua.

Enpresa-jarduera gero eta zorrotzagoa den eta informatuago dagoen ingurune sozialean garatzen da, eta konpainiok ahalegindu egiten gara, gurekin elkarreraginean dauden eragileekin harreman sendoak ezartzeko, baina batez ere gure eragiketetatik hurbil dauden erkidegoekin, eragiketa horien oinarria hauxe dela kontuan hartuta: errespetua, sentsibiltate kulturala, osotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, fede ona eta ez-bereizkeria.

Petronorren, giza eskubideak errespetatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, gure jarduerak eta erabakiak inguruko pertsonen kalterako izan ez daitezen eta, hori gertatuz gero, ahal den guztia egin dadin kalte hori konpontzeko. Honako ekimen hauek daude ardatz horren barruan.



EKINTZA

Kalitateko lan-prestakuntza inklusibo eta berdintasunezkoa bermatzea eta, horrez gain, etengabe ikasteko aukerak sustatzea pertsona guztientzat.

DESKRIBAPENA

Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera, Lantegi Kimikoko operadoreentzako trebetasunen arloko prestakuntza emango diegu langabetuei.

ADIERAZLEA

Ikastaroa egin duten guztiek prestakuntza-prozesua gainditu dutela egiaztatzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

2030erako GJHen ezagutza hedatzea Petronorreko antolakuntza-egituran.

DESKRIBAPENA

2030erako GJHen ezagutza bultzatuko dugu konpainiako liderren artean, erakundeko jarduera eta antolakuntza-maila guztietan jasangarritasuneranzko ikuspegia sendotzeko asmoz.

ADIERAZLEA

Petronorreko 100 lider 2030erako GJHen ezagutzan prestatzea prestakuntza-ikastaroaren bidez.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Modu integratuan lan egiten dugu agerpena daukagun herrialde guztietan. Gure jokabide etikoan, zorrotz betetzen dugu legea, baita bere espiritua ere.

Ardatz honetan, zenbait ekintza zehazten ditugu, eta ziurtatu egiten dute konpainiak osotasunaren eta erantzukizunaren kultura sustatu eta bultzatzen duela Petronorreko langile guztientzat, baita gure hornitzaile, kontratista eta enpresa laguntzaileentzat ere.

Horrez gain, gardentasuna eta egoeraren berri emateko prozesua jotzen ditugu Petronorreko jasangarritasun-ereduaren elementu bereizgarritzat. Sinesgarria izateko, funtsezkoa da beti-beti gardena izatea. Jendaurrean zerga-arloan konpainia oso eta gardena garela aitortzea nahi dugu. Hori dela eta, EITira gaude atxikita (Extractive Industries Transparency Initiative), administrazioekin ditugun lankidetzapeko harremanak sendotzeko.

Jasangarritasun Plan honetan, zenbait ekintzaren inguruko konpromisoa hartu dugu, konpainiak arlo horretan proposatu dituen erronkak lortzen laguntzeko eta alderdi interesdunen aurreikuspen nagusiei erantzuna emateko.



EKINTZA

“TiketBai” fakturazioa ezartzea, zergarik ez saihesteko.

DESKRIBAPENA

Fakturazioan, behar besteko softwarea jarriko dugu, Bizkaiko Foru Ogasuneko “TiketBai” proiektura atxikitzeko. Horrela, Euskadiko Ogasunarekin lan egingo dugu Petronor S.A.ren jarduerak sorrarazten dituen diru-sarreraren kontrolean, zergarik ez saihesteko.

ADIERAZLEA

Abenduaren 31n atxikimendua nabarmentzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da.

Urtero, plan hau osatzen duten ekintzen lorpen-mailaren berri emango dugu, eta, horretarako, amaierako txostena argitaratuko dugu.

Bestetik, gure alderdi interesdunentzat kezkarriak diren gaiak edo aurreikuspenak aldagarriak direnez eta urtean jazotako gertaeren bilakaerarekin lotuta daudenez, plan hau urtero eguneratuko da ekintza berrien bidez, edo, bestela, indarrean daudenak zehaztuko dira berriro, egoera berrira egokitu ahal izateko.

Plana eguneratu ahala, bete diren ekintzen azterna geratuko da haien atzean, eta, denak batera, gure konpainiak garapen jasangarrira egindako ekarpena izango dira.







Petronor

www.petronor.eu